

Ez isil!

Ximun: Ontsa zara, Oskar? Kezkatua iduri duzu?

Oskar: Bai, bai, ontsa naiz... Baina, gertatzen dena da, zenbait egun hauetan, eskolatik etxeratzekoan, handi batzuk ikusten ditudala ene gelako mutiko baten **IRAINTZEN** ari...

Ximun: A bai? Eta zu ere nardatu zaituzte?

Oskar: Ez. Handik pasatzen ikusi nauten aldi bakarrean, erran didate bakarrik handik joateko, ez baldin banuen arazorik ukan nahi.

Ximun: Eta mutiko hori, ardura nardatzen dute?

Oskar: Bai, eta haren **JOTZEN** ere ikusi izan ditut.

Ximun: Zerbait egin behar dugu. Horrela segituz, afera hori gaizki bururatuko da!

Oskar: Badakit, baina ni ez naiz aski indartsua haren defendatzeko.

Ximun: Baina zergatik ez diozu heldu bati aipatzen? Zure irakasleari, adibidez. Hark jakinen du, hain segur, zer egin...

Oskar: Bai, ideia ona da, baina beldur naiz handiek **SALATARIA** naizela erranen dutela. Behar bada, mendekatuko zaizkit!

Ximun: Bistan da pixka bat beldurgarria dela, baina zure gelako mutiko horri zerbait larri gertatzen balitzaio, konplize bezala sentituko zinateke... ohartzen zara? Hobe da heldu bati aipatzea, hark jakinen du zer egin, segur naiz!

Oskar: Egia da, arrazoi duzu! Zerbait egin behar dut!

Ximun: Gainera, jar zaite haren lekuan. Talde bat beti zure nardatzen ari balitz, ez zenuke nahi norbaitek laguntzea?

Oskar: Segur baietz, Ximun! Berahala aipatuko diot irakasleari!

Ximun: Ikusiko duzu, ez zaizu dolutuko!!!

Itzulpena: Maialen Bidegain

IRAKASLE!!! BADA BAT ZANPATZEN ARI DENA!!!

